BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

UNBEko kiroldegiko erabiltzaileen autobus-garraioaren zerbitzua ematea.

2. ZERBITZU-PRESTAZIOAREN EGUTEGIA

Zerbitzua honako egun hauetan emango da:

- Lan-egunetan, astelehenetik ostiralera, eskola-egutegiko egunetan; adjudikaziodunari egutegi hori gutxienez hilabete lehenago jakinaraziko zaio. OHARRA: Irailean ez da zerbitzurik egongo.



(*) Aurreikusitako egutegiaren arabera, egutegi ofiziala argitaratzeko zain.

Zerbitzu egunak / hilabeteak	
16	iraila
23	urria
20	azaroa
14	abendua

19	urtarrila
19	otsaila
19	martxoa
12	apirila
21	maiatza
15	ekaina
178	**Zerbitzu egunak guztira**

(*) Aurreikusitako egutegiaren arabera, egutegi ofiziala argitaratzeko zain.

3. IBILBIDEAK ETA ORDUTEGIAK

Irteera Ego gain kaletik	Irteerak Unbetik
16:00	16:10
16:20	16:30
16:40	16:50
16:55	17:25
17:10	18.15
17:40	19:00
18:00	19:15
18:30	19:45
19:30	20:15

Ibilbide bietan tarteko geldialdi bat egingo da Ubitxako iturrian.

4. ADJUDIKAZIODUNAK JASOKO DUEN KONTRAPRESTAZIOA

Kontratuaren adjudikaziodunak kontraprestazio hau jasoko du:

- Gehienez 275,00 €, zerbitzua ematen den egun bakoitzeko, lizitazio-mota gisa finkatzen dena. Udalak zuzenean ordainduko dio kontratuaren adjudikaziodunari, gehi %10eko BEZA.
- 0,5 € zuzenean ordainduko zaizkio kontratuaren adjudikaziodunari, zerbitzuko erabiltzaile bakoitzak joan-etorriko bidaia bakoitzeko. Kontratuaren adjudikaziodunak 10 €-rainoko bonuak saldu ahal izango ditu, 10 egunerako balioko dutenak (euro 1 egunean).
- Adjudikaziodunak autobusean bertan ere saldu beharko ditu bonuak.
  OHARRA: Kontzeptu horrengatik urtean 5.000 € inguru biltzea aurreikusten da.

5. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Zerbitzua eskaintzen duen autobusak gutxienez 36 plaza + gidaria izan beharko ditu.

Kontratua gauzatzeko erabiliko den autobusak bidaiarien segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia beteko du, eta zerbitzu horiek betetzeko beharrezkoak diren eta indarrean dauden zirkulazio-baimen guztiak izango ditu.

Ibilgailuak irisgarria izan behar du mugikortasun mugatuko pertsonen garraiorako, izan garraio hori gurpil-aulkiekin edo gurpil-aulkirik gabe.

Kontratuaren adjudikaziodunak, Udalaren eskariz, zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua aurkeztu beharko du, hilabeteka ordenatuta.

Adjudikaziodunak komunikazio-kanal bat eduki beharko du erabiltzaileekin, zalantzak eta kontsultak jasotzeko; gutxienez, telefono-zenbaki bat eta erabiltzailearen arretarako helbide elektroniko bat jarriko ditu eskura.

6. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Zerbitzua eman behar duten autobus-gidariek gaitasuna izango dute erabiltzaileei euskaraz eta gaztelaniaz arreta emateko.

Erabiltzaileekin lehen hitza euskaraz egingo da beti, eta gero erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan.

Umeekin eta gazteekin euskaraz egingo da beti.

Autobusean edo geltokietan jartzen diren jarraibide eta ohar orokorrak euskaraz izango dira, mezuak ezagunak eta ulergarriak direnean. Ezinezkoa denean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Erabiltzaileei salduko zaizkien bonuak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.